

## KOSTUEN EGITURA

Enpresa aurrera ateratzeko hasieran kostu handiak izango ditugu. Bi motatako kostuak izango ditugu: finkoak eta aldakorrak.

Alde batetik kostu finkoak ditugu. Lehenik eta behin, lokal bat alokatu behar dugunez, hilabetero 1.500€-ko kostua izango du. Lokalarekin batera, ura (300€), argia eta gasa (400€) ordaindu beharko ditugu. Horrez gain, wifi sare bat behar dugu bertan interneta erabili ahal izateko, honek 36€-ko kostua du hilabetearen. Lokala hutsik alokatu behar dugunez, altzairuak eta dekorazioa erosi beharko dugu; badakigu honek kostu handia izango duela, gutxi gorabehera 4.000€. Gainera, publizitatu egin behar gara, eta honek diru asko balio du, 4.000€ esate baterako. Azkenik, bankuan eskatutako mailegua itzuli beharko dugu, 30.000€ eskatuko diegu hasierako gastu guztiak ordaindu ahal izateko.



Bestalde kostu aldakorrak izango ditugu. Gure lokala nahiko merkea denez, ez da oso handia izango, eta horregatik bilerak egiterako momentuan ezingo gara bertan denak sartu. Horregatik, beste lokal bat alokatu beharko dugu, baina, ordu bakoitzeko ordaindu beharko dugunez, ezin dugu kalkulatu zenbat ordaindu beharko dugun bilera dugun

bakoitzean. Bilerak guk ordainduko ditugu, hau da, enpresak eta bezeroak ez dira kostu hauetaz arduratuko.

Ez dakigu urtean zenbat enprekin edukiko dugun kontratua, ezta zenbat bezero nahiko duten gure zerbitzua erabili. Orduan, ezin dugu kalkulatu zehazki urtero irabaziko dugun diru kopurua, izan ere, enpresek ordaindutako diruaren %20-arekin geratuko gara baina diru kopuru hori enpresek langileari ordainduko dioten kantitatearen araberakoa izango da.

  
**PAMI**  
*Lana*  
**Langileentzat**

